


eBATXILERGOA 2006-2007 ZientziaWEB

Sarrera

Proiektu honek **JARRAIPENA** eta **BERRIKUNTZAK** ditu batera.

Proiektuarekin jarraitzearekin arrazoi nagusi bat materiala ondo baloratua dela ikustea da.

Hori ikusteko, hona hemen webgunean jarritako materialek izan duten bisita-kopuruak:



Ikusten denez, 2004-2005 kurtsoarekin alderatuz, aurtengo ikasturtean %48 bisita gehigo izan ditu webguneak; aurtengo ikasturteko amaierarako 9.500 bisitara iristea espero da.

Jarraipena


Neurri batean, proiektu hau aurrekoaren (FKTAE-WEB) jarraipena da: Fisika, Kimika eta Teknologia arloen material pedagogikoa du. Material pedagogikoa hori batzutan interaktiboa da eta simulazioak ditu, bestetan (selektibitateko frogen ebazpenetan esate baterako) apunteak dira. Beti ere, material hau DBH eta Batxilergoko curriculumarekin lotura zuzena du.

Jarraituko den beste bide garrantzitsu bat, material **ELEANITZA** egitea: euskaraz, gaztelaniaz eta ingeleraz. Hau bat dator Hezkuntza Saileko ildo nagusi batekin: Batxilergoa amaitzean ikasketak hiru hizkuntzetan egin eta hizkuntza horietan ariketzeko trebetasuna izatea.

Berrikuntzak

Bestalde, berrikuntzak ere baditu. Hauek dira:

- ZIENTZIAREN IKUSPUNTU SOZIALA. Hau da, betiko material curricularrareiz gain, honekin konektatzen duen beste material-mota bat du, gizartearen arazo nagusiekin konektaturik. Planteamendu hau, Kimikako Salters proiektua oinarriturik dago. Hona hemen planteamendu horren eskema labur bat:



- KLASE eta AUTOIKASKETAREN ANTOLAKETA. Diseinu curricularrarekin (helburuen jerarkia, sekuentziarioa) eta denboralizazioarekin lotutako atala. Honela, ikasle eta irakasleek, materialak bere eguneroko plangintzarekin lotuta aurkituko dute. Planteamendua, zenbait pedagogia ikuspuntuarekin bat egiten du; esate baterako, helburuen jerarkia Robert Gagne-ren pedagogia eskolarekin bat egiten du.
- IRAKASGAI BERRIAK. Zientzia osatzearren, iaz Fisika eta Kimikari gehitu zitzaion. Hurrengo proiektu honetan, Fisika, Kimika eta Teknologia ikasgaietan materialak gehitzeaz gain, Biologia eta Geologia ikasgaiak sartzen ere hasiko gara. Honela, Zientzia eta Teknologia arloak osatzen joango gara.

Helburuak

Proiektu honek helburu hauek ditu:

- **KLASE BIRTUALAK:** Fisika, Kimika, Teknologia, Biologia eta Geologia klaseak on-line egin; hau da, testua, irudiak, animazioak, interaktibitatea eta ahotsa duten materialak webgunean argitaratu, denon eskura egoteko.
- **ARIKETA EBAZTUAK.** Selektibitateko (aurtengoak baita ere) eta beste azterketa-ereduak ebaztu eta webgunean sartu. Honela, azterketa horiek nola burutu behar diren jakingo ditu ikasleak.
- **KLASE-PLANGINTZAK.** Baliabideak erabiltzeko, egokia izaten da irakasleak jakitea, klasea emateko garaian, "gaur zer egokitzen den". Atal bat sortuko da, eguneroko gaiarekin zein material egokitzen den jakiteko, zein helburu didaktiko lortu behar diren eta abar.
- **MATERIAL ELEANITZA.** Sortzen den material guztia hiru hizkuntzetan egongo da: euskaraz, gaztelaniaz eta ingeleraz. Honela, Hezkuntza Sailak ezarri nahi duen eta etorkizuna gehienetakoa duen ildoak jorratuko da: ikaslearen gaitasuna hizkuntz horietan, berriazko gaiak garatzean.

Proiektu honen asmoa, ikasturtean 15.000 bisitara iristea da (aurrekoarekin %50-eko gehikuntza). Honek adieraziko luke bere erabilgarritasuna.

Garatuko den produktua

Garatuko dira zientziako gaiak, ariketak eta gaien frogak. Materiala Flash eta HTML formatuetan egongo da eta webgunean egongo dira (<http://www.zarautz.com/rafamunoa>). Hona hemen aurrikusitako atalak:

- **FISIKA**
 - Bektoreak eta zinematika
 - Elektrizitatea gure gizartean
 - Hautaprobek ariketa ebaztuak
- **KIMIKA**
 - Euri azidoa
 - Erregaiak
 - Hautaprobek ariketa ebaztuak
- **TEKNOLOGIA**
 - Altzairuaren beharra
 - Elektronika: Boole-ren algebra eta ate logikoak
 - Material berriak gure gizartean
 - Hautaprobek ariketa ebaztuak
- **BIOLOGIA**
 - Aminoazidoak eta proteinak
- **GEOLOGIA**
 - Lurra eta agrikultura
 - Ozeanoak